

LOTSA

EMOZIOAK LANTZEN

Besteek espero ez duten bezala edo kode-kultural jakinen arabera jokatu ez dela sentiarazten duen **deserosotasun sentipen** moral latza. Sentipen hau nabari da besteen ongizate edo eskubideei erasan ez dieten ohiko arau sozialak hausten direnean.

Aukeratu zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru erantzun dira egokiak:

Konturatu gabe zerbait gaizki egiten dugunean.

Sufritzen ari den pertsona kontsolatzen dugunean.

Norbaitek barregarri uzten gaituenean.

Besteen ikuspuntua ulertzen dugunean.

Jende askoren aurrean hitz egitean.

Opari bat egiterakoan jasoko duen pertsonarengan pentsatzen dugunean.

ELENAREN ANAIA

-Ama! Aita! Elenak bizia salbatu dit! -esan zuen Patxik etxeko atetik sartu bezain laster.

Elena isilik geratu zen. Bazekien goiz hartako abenturak azaltzeko momentua iritsi zela, beraz istorioa hasieratik kontatzen hasi zen.

Uda zen eta bero handia zegoen. Elena anaia Patxirekin auzoko igerilekuan zen, ura oso gustukoa baitzuen eta bai baitzekien igerian.

- Elena, zatoz gurekin -esan zioten bere lagun Laura eta Intzak.

- Berak ez zekien zer egin: amari anaia Patxi, adimen urrikoa zena, zainduko zuela hitz emana zion. Lotsa ematen zion, ordea, lagunek jakiteak arazoak zituen anaia zuela, horregatik, ez entzunarena egin zuen.

- Elena, zergatik ez zatoz gurekin bainatzera?

Lagunak gehiegi hurbildu zitzaizkion, eta erantzun behar izan zien:

- Banoa! Nire gauzak hartu behar ditut. Aurreratu zaitezte eta oraintxe joango naiz.

Anaia zaindu nahi zuen, baina baita lagunekin egon ere, beraz, esan zion Patxiri:

- Patxi, mesedez, gera zaitez hemen mugitu gabe ni etorri arte, konforme? Etorri bezain laster elkarrekin uretara joango gara. Ondo iruditzen al zaizu?,

- Oso ondo, Elena, hemen geratuko naiz.

Elena poz-pozik joan zen Laura eta Intzarekin bainatzera. Ezin zuen pentsatu ere egin geroago gertatu behar zuena.

Patxiri denbora luzea pasatu zela iruditu zitzaionez, arrebaren bila joatea erabaki zuen, baina hura oso leku handia zen eta beldurtzen hasi zen. Denbora luzez bila ibili ondoren topatu eta dei egin zion.

- Elena, Elena,! Bainatu egin nahi dut!

Elenak entzun ez balio bezala egin zuen, baina Patxik igerilekuaren beste aldetik berriro deitu zion.

Lagunek esan zioten:

- Nor da hori? Badirudi zuri deika ari dela.

- Bai zera, beste norbaitekin nahastu nau ziurrenik -eta Elenak uretan jarraitu zuen lagunekin jolasean.

Patxi igerileku ertzera hurbildu eta dei egin zion, baina Elenak ez zion jaramonik egin. Orduan, igerileku ertz-ertzean zegoela konturatu gabe gehiago hurbildu eta uretara erori zen.

Elenak ikusi zuenean, berehala joan zen garrasika ari zen anaiarengana eta esan zion:

- Ez kezkatu, banoa! -eta eskaileratxo batzuk eskuratzen zizkion bitartean.

Igotzen lagundu eta bere toaila eman zion.

- Patxi, esan dizut handik ez mugitzeko eta nire zain egoteko -esan zion haserre.

- Baina, bero nintzen eta bainatu nahi nuen -erantzun zion Patxik negarti, errieta egin dioten baten antzera.

Elenaren lagunak egoera ulertu ezinik galdetu zioten:

- Elena, nor da mutil hori? Ezagutzen al duzu?

- Bai, anaia dut -erantzun zuen lotsatuta lurrera begira.

- Eta zergatik ez diguzu lehenago aurkeztu?

Elenak lotsatuta esan zien:

- Arraro samarra baita..., adimen urrikoa da eta ume txiki bat bezalakoa da ni baino zaharragoa bada ere.

- Anaiarekin lotsatzen zara? -galdetu zion Laurak-. Nik arazoak dituen anaia edukiko banu, harro sentituko nintzateke berari lagundu eta berarentzat garrantzitsua izateaz.

- Tira... nik ulertzen dizut... niri berdina gertatuko litzaidake... -esan zuen Intzak.

Laurak suminduta begiratzen zien biei, Patxi bitartean, elkarrizketatik kanpo, bere burua lehortzen ari zen.

Eta zuek antzeko arazoren bat edukiz gero, gustatuko al litzaizueke zuekin lotsatu eta jendearengandik ezkutatuak izatea? -galdetu zion Elenari eta Intzari.

Biak pentsakor geratu ziren zer erantzun jakin gabe. Patxi altxatu eta arrebari esan zion:

- Elena, bizia salbatu didazu. Maite zaitut -eta musu eman zion.

Elena izugarri hunkitu zen: anaiak arrebarekin maitagarri jokatzeko bitartean, arreba honekin lotsatzen zen. "Eskerrak konturatzen ez den", pentsatu zuen.

Laura Patxirengana hurbildu eta esan zion:

- Kaixo Patxi! Laura dut izena eta zure arrebaren laguna naiz -eta musu eman zion.

Intza, une batean zalantzan egon zen baina azkenean bostekoa emateko keinua egin zuen bere burua aurkezteko asmoz.

- Intza nauzu eta ni ere zure arrebaren laguna naiz.

Baina, Patxik honengana jo eta pot eman zion. Patxi erabat pozik zegoen hainbeste musurekin eta esan zion irrifartsu:

- Patxi nauzue, Elenaren anaia, munduko arrebarik onenaren anaia.

Elena gorritu egin zen eta denak barrezka hasi zitzaizkion.

- Zergatik ez gara denok elkarrekin bainatzen? -proposatu zuen Laurak. Hondoak jotzen ez duen aldera joan gaitezke Patxirekin egoteko. Zer deritzozue?

Laurek oso ondo pasatu zuten goiza eta ia konturatu gabe, etxera bazkaltzera itzultzeko ordua iritsi zen.

Orain gurasoak pare-parean zituen eta anaiari bizia nola salbatu zion azaldu behar zien.

Elenak goiz hartan igerilekuan gertaturiko guztia ez zuen kontatu, laburpen txikia baino: Patxi igerilekura erori zela eta berak ateratzen lagundu ziola.

Gurasoek hori entzun ondoren, esan zioten:

-Eskerrik asko anaia zaintzeagatik, badakizu gure laguntza behar duela. Oso harro gaude zurekin.

Elenak Patxiri begiratu eta une batez haren lekuan jarri zen. Orduan onartu zuen goiz hartan Laurak izugarrizko eskarmentua eman ziola.

Erantzun ondorengo galderak:

- Zergatik lotsatzen zen Elena bere anaiaz?
- Elenaren bi lagunak berdinak al dira?
- Nola uste duzu sentitu zela Patxi uretara erori zenean?
- Patxi erori izanaren errua norena zela uste duzu? Patxirena edo Elenarena?
- Elenarekin hitz egiteko aukera izango bazenu, zer esango zenioke?